


Klonazioa

HELBURUAK

Gaia amaitzean, zera
jakingo duzu...

- Klonazioa **zer den**
- Zer teknologiak erabiltzen diren eta zertarako den erabilera hori
- Bere erabileraren **inplikazio etikoak**
- Gaur **egun** zer egoeran aurkitzen den gaia eta zer **aukerak** ematen dituen

Klonazioa




Zer da klonazioa?

Klonazioa beste baten kode genetiko berdina duen organismoa sortzea da. ADN berdina izan behar dute horretarako.



Klonazioa



Teknologia: Zelula somatikoaren transferentzia nuklearra (Somatic Cell Nuclear Transfer, SCNT)


Teknologia hori aztertu baino lehen, goazen terminoak argitzera.

Somatikoa: ugaltzeko zelulak ez diren beste edozein zelula-mota

Nuklearra: zelularen nukleoa, bertan dago ADNa, informazio genetikoa dakarren molekula.

Transferentzia: desplazatzera toki batetik bestera.

Klonazioa




Teknologia: Zelula somatikoaren transferentzia nuklearra (Somatic Cell Nuclear Transfer, SCNT)

Dolly ardia klonatzeko erabili da teknika hori. Zelula somatikoaren nukleoa transferitu eginzen nukleorik gabeko (kendu egin zitzaiolako) obulu batera.

Nukleo (eta informazio genetiko) berriarekin obulua inplantatu egin zen gestazio normala izateko.

Klonazioa



Teknologia: Zelula somatikoaren transferentzia nuklearra (Somatic Cell Nuclear Transfer, SCNT)

Enukleazioa prozesu garrantzitsua da teknologia honetan.


Prozesu honetan zelula bati nukleoa (eta kode genetikoa berarekin doa) kendu egiten zaio.

Euli baten oozito baten nukleoloaren kentzearen prozesua. Nukloaren barnean dagoen nukleoloa pipeta mehe batekin aspiratu eta kendu egiten da.

Klonazioa

How therapeutic cloning could work

Cloning human tissue has never been done, but one way it might be performed:



Source: Hans Keirstead, UC Irvine

Phil Loubere / The Register

http://www.ocreger.com/newsimages/news/2007/05/15stemcells_em.gif

**Klonazio terapeutikoa.
Klonazioa eta ama-zelulak**

Zenbait zientzilari klonazioa erabiltzen ari dira ama-zelulen ikerketarekin batera.

Honen helburu bat gorputzak transplantatutako ehunak ez errefusatzea litzateke: gaixoen zeluletatik lor daitezke eta sistema immunologikoak ez luke errefusatuko.

Erabil daiteke gaixotasunak sakonago aztertzeko baita ere.

Klonazioa



Aspektu etikoak

Teknologia honen inguruan dagoen kezka nagusia zera da: ea nukleoaren transferentziaren teknologiak giza-klonak sortzeko erabiliko ote den.

